



2023R-1710-22 EBAZPENA, Arartekoarena, 2023ko uztailaren 14koa, honen bidez Consorcio de Aguas de Álava URBIDE/Arabako Ur Partzuergoari eta URA/Uraren Euskal Agentziari gomendatzen baitzaie bultza ditzatela Laudioko Aldaikoerrekara isurketak egiteagatik aurkeztutako salaketei erantzuteko adostutako neurriak.

Aurrekariak

1.- Pertsona batek kexa aurkeztu zion Arartekoari, administrazio publiko eskudunek Aldaikoerrekaren Laudioko Aldai plazako tartean ura egoera onean egoteko ezer egin ez dutela-eta.

Hain zuzen ere, kexagileak adierazten zuen errekaren tarte horretan hondakin-urak isurtzen direla eta horren ondoriozko kiratsak eragozpenak sortzen dizkiela inguruan bizi direnei. Kexan adierazten zuen URBIDE/Arabako Ur Partzuergoari eta URA/Uraren Euskal Agentziara jo zuela egoera salatzeke eta informazioa eskatzeko Aldaikoerrekaren tarte horretan egiten diren isurketak kontrolatzeko ezarritako neurriei buruz.

2.- Kexa izapidetzeko onartu zen eta gero, 2022ko abuztuaren 23an, Arartekoak URBIDE/Arabako Ur Partzuergoari eta URA/Uraren Euskal Agentziari galdetu zion ea zer egin den azken urteotan Aldaikoerrekaren tarte horretan antzemandako isurketak kontrolatzeko eta tratatzeko.

3.- 2022ko urriaren 20an URA/Uraren Euskal Agentziak Arartekoari erantzun zion, eta komunikazio baten bidez errekako ura zer egoeratan dagoen eta antzemandako isurketekin zer egin den azaldu zion.

Erantzun hartan URAk adierazten zuen Anbiotek enpresak Aldaikoerrekako uraren kalitateari buruzko azterlana egin zuela 2022ko urriaren 5ean.

Azterlan hartan esaten zen Aldaikoerrekako uraren egoera fisiko-kimikoak isurketen eragina jasan zuela. Hain zuzen ere, azterlanaren arabera, kontrol-puntuetako batean pH eta nitrato helburuak baino ez ziren betetzen, eta gainerako adierazleek helburuak ez ziren inondik inora betetzen.

Isurketen kontrolari buruzko informazioa dela-eta, URAren txostenean azaltzen zen bi kasutan herritarrek salaketa aurkeztu zutela ur beltzak isurtzeagatik errekara:

- *"2020ko irailaren 9an, Uraren Euskal Agentziak partikular baten salaketa telefonoz jaso zuen, ohartarazteko Aldaikoerreka ubideak, lurpeko eremutik irteten zen zatian (UTM ETRS89 koordenatuak; X: 502.997 y:4.776.804 kolore grisa eta ur beltzen usaina zituela. Ikuskatze-bisitan egiaztatu zen ezen galeriaren inguruan, euri-uren sareko hodi baten bidez, ur beltzen isurketa bat zegoela.*

Jasotako salaketarekin salatzailearen nortasuna ageri ez denez, Agentzia honek DNV-B-2020-0046 salaketa-espeditentea abiarazi zuen ofizioz.



*Eremu horren finkatze-maila kontuan hartuta, eta udal-eskumenen arabera, 2020ko urriaren 2an ofizio bat igorri zitzaion Laudioko Udalari, jakinarazteko **behar adina jarduketa egin behar zituela ubidera egiten ari zen isurketa ezabatzeko** eta hondakin-ur horiek bere titulartasunekoak ziren eta baimenduta zeuden isurketa-puntuetakoa batera bideratzeko. Eskatu zitzaion, halaber, hala bazegokion, bermatu behar zuela udalerriko aurretratamendu-sistemek (putzu septikoak) mantentze-lan egokiak jasotzen zituztela, saneamendu-sarera egiten ziren isurketen karga kutsatzailea ahalik eta gehien murrizteko.*

Horri erantzunez, 2020ko urriaren 15ean, Udalak ofizioa igorri zuen, telebista-kamerekin ikusteko eta grabatzeko tekniken bidez kolektore-sarean egindako ikuskapenen berri emateko. Bertan ikusi zen kolektoreetako bat hondatuta zegoela, eta, ondorioz, ur beltzak migratu zirela paraleloki doan euri-uren sarera. Era berean, jakinarazi zuen epe anomalia labur/ertainean detektatu ondoren, tarte horretan ur beltzen sarea berregitea eta eremuko erregistro-putzu batzuk hobetzea aurreikusten zela, iragazketak eragozteko.

2020ko azaroaren 16an ikuskatze-bisita egin zen, isurketari buruzko informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa lortzeko asmoz. Kalkuluen arabera, isurketa 0,3 l/s-koa zen; isurketaren lagin bat hartu zen, eta berretsi zen ur beltzei zegokiela”.

“2022ko ekainaren 17an, partikular batek telefonoz salatu zuen Aldaikoerreka ubidean ur beltzak zeudela. Jasotako salaketarekin, eta salatzailea nortasuna ageri ez denez, Agentzia honek DNV-2022-0222 salaketa-espeditentea abiarazi zuen afizioz 2022ko irailaren 19an.

Hori dagokionez, 2022ko urriaren 4ean ofizio bat igorri zaio Urbide Arabako Ur Partzuergoari, eta eskatu zaio behar beste jarduketa egin ditzala ubidera egiten ari den isurketa amaitzeko eta ur horiek arestian adierazitako baimendutako puntu batera bideratzeko. Halaber, eskatu da berariaz jakinaraz dezatela ea saneamendu-kolektorean eta erregistro-putzuetan egin beharreko hobekuntzak egin diren; eta agentzia honek 2020ko urriaren 15eko ofizioaren bidez izan du horien berri.”

- Beste alde batetik, URAREN txostenean adierazten zen 2017ko abenduaren 13ko ebazpen baten bidez Kantauri Itsasoko Konfederazio Hidrografikoak berrikusi egin zuela Laudioko udalerriko hondakin-urak isurtzeko baimena, kutsadura murrizteko programa bat (hemendik aurrera KMP) oinarritzat hartuta, ez dagoelako hondakin-uren araztegirik (HUA) udalerrian egiten diren isurketen tratamendurako. Baimenaren titularra Laudioko Udala izan zen, eta geroago Ur Partzuergoa.

KMPn ezarritako jarduketa garrantzitsuena zen noizbait udalerrian isurtzen diren hondakin-urak Basaurbeko HUARA bideratzea (araztegi hori amaitu gabe dago oraindik). Horrez gainera, zenbait baldintza ezartzen dira saneamendu-sarea egokitzeaz eta egiten diren isurketak kontrolatzeaz, behin HUA zerbitzuan hartzen



denean udalerrian isurtzen diren hondakin-ur guztiak bertara bideratzeko tratamendu egokia jasotzeko.

Nolanahi ere, txostenean honako hau onartzen zen: *"Udaleko saneamendu-sarera isurtzen diren urak zuzenean isurtzen dira jabari publiko hidraulikora, inolako tratamendurik gabe, edo, bestela, aurretratu egiten dira inolako titulartasun pribatuko sistemetan."*

Uraren Euskal Agentziak adierazten zuen bere egitekoetako bat hirigunean eta industriaguneetan isurtzen diren hondakin-uren jarraipena egitea dela. Laudion jarraipena egiten zaien baimendutako puntuetatik lautuan kutsadura-maila *"ez da egokia"*.

Isurketen baimenaren jarraipenaren barruan, baimenaren titularra den entitateak udalerriko sarea hobetzeko egin diren lanen berri eman zuen. Besteak beste, Lamuza kalako saneamendu-sarea aipatzen zuen.

4.- 2022ko azaroaren 8an URBIDE/Arabako Ur Partzuergoak Arartekoari azaldu zion zergatik ez zion erantzun Aldaikoerrekaren Laudioko Aldai plazako tarteko egoerari buruzko galderari.

"Tras recibir el primer correo interesado, el Consorcio se reunió con el Ayuntamiento de Laudio para analizar el problema."

Desde el Ayuntamiento de Laudio se nos comunicó que eran conscientes del problema y que estaban realizando una limpieza e inspección del colector que discurre desde el interior del paso cubierto de la regata Aldaikoerrea hasta su salida aguas abajo en la plaza Aldaiko. Se comprobó que, aunque el colector precisaba de una limpieza, el problema de los vertidos fecales no proviene de dicho colector sino de un vertido de una red de saneamiento pluvial contaminada existente al inicio del tramo cubierto de la regata."

Dicho colector de saneamiento de aguas pluviales recoge las aguas superficiales de lluvia de las calles Motxotekale, Ruperto Urquijo, Butrón y parte de Lamuza."

Desde el Ayuntamiento se tenía constancia de problemas en el saneamiento de la calle Motxotekale que contaminaban el vertido pluvial a la regata. El Consorcio contrató y ejecutó durante los meses de julio y agosto obras de mejora en el saneamiento de Motxotekale, tras las cuales se logró una separación real entre las redes de saneamiento fecal y pluvial."

Una vez ejecutadas dichas obras, se comprobó que el problema no se había resuelto y que se estaban produciendo aportes de aguas fecales desde las calles Ruperto Urquijo, Butrón y Lamuza."

El Consorcio ha auscultado en el mes de septiembre las redes de saneamiento de la zona y ha detectado que 35 metros de la tubería de saneamiento fecal que



discurre por la calle Lamuza se encuentran totalmente rotos y esto está provocando la incorporación de aguas fecales a la red de aguas pluviales que van a verter al paso inferior de la regata Aldaikoerreka.

Actualmente se está redactando desde el Consorcio una memoria valorada de los trabajos a realizar para valorar el importe de dicha reparación y acordar con el Ayuntamiento de Laudio su financiación y ejecución de las obras”.

Kexa hori ikusita, haren planteamendua eta administrazio horrek igorritako informazioa aztertu ondoren, Arartekoari egokia iruditu zaio honako gogoeta hauek egitea:

Gogoetak

1. Lehenbizi, gogoan eduki behar da administrazio publikoek herritarrekin dituzten harremanetan bermatu behar dutela beren izapideen trazabilitate egokia administrazio-prozedura baten bidez, eta horretarako legezketasun-printzipioa eta administrazio onaren printzipioa bete behar dituztela.

Herritarrek administrazio onerako eskubidea daukate; horrek berekin dakar administrazio publikoek prozedurarako eskubidea bermatu behar izatea, eta horren ondorioz honako hauek egin behar dituzte, gutxienez: aurkezten zaizkien idazkiak jaso dituztela adierazi, bidezko prozeduretan ofizioz bultzatu, eta aurkezten zaizkien galdera eta errekurtso guztiei zentzuzko aldi baten barruan erantzun.

Hortik ondorioztatzen denez, administrazio publikoei idazkiak aurkezteko herritarrekin harremanetan jartzeko kanal eta komunikazio-bideen bitartez, ezinbestekoa da, beti eta kasu guztietan, administrazio-izapidea egitea eta administrazio publikoak erantzuna ematea interesdunak adierazitakoa bideratzeko asmoarekin.

Nolanahi ere, hori gorabehera, gerta liteke administrazioak kasu batzuetan interesdunari eskatzea argitzeko zer nahi duen, edo eskaeran bete beharreko gutxieneko baldintza batzuk ezartzea, kasu guztietan eskubide horiek erabili ahal izatea bermatzeko.

Administrazio onaren printzipio horiek erreklamazio honetan azaltzen den kasuan ere aplikatu daitezke, pertsona batek salatu baitu Aldaikoerreka Laudioko Aldai plazako tarteko uren egoera txarrak eragozpenak sortzen dituela.

2. Salatzailearen egitekoa dela-eta, erakunde honek aurreko ebazpen batzuetan goraipatu du herritarrek, pertsona fisikoek zein juridikoek, egiteko garrantzitsua daukatela administrazio publikoei laguntzen, batez ere ingurumen-arloko araudia behar bezala betetzen dela bermatzeko, esaterako uraren kalitatearen eta jabari publiko hidraulikora egiten diren isurketen kontrolari buruzko araudia.



Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 45. artikuluan ezartzen da herritarrek ingurumen egokirako eskubidea daukatela; hori lortzeko, botere publikoek, bakoitzak bere jardun-eremuan, modu egokian kontrolatu behar dute uren kalitatea, baimendu gabeko isurketek kalterik egin ez diezaioten ingurumenari. Uren kalitatea babesteak dakartzan interesak eta onurak askotarikoak, ugariak eta kolektiboak dira, EAEko ingurumen-administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak 5. artikuluan ezartzen duen bezala. Arau horren arabera, pertsona guztiek, fisikoek zein juridikoek, akzio publikoa erabil dezakete EAEko administrazio publikoerik eskatzeko bete ditzatela ingurumenaren arloko legerian ezartzen diren betebeharrak.

Horrenbestez, ingurumen-arloko zuzenbidea bete ez dela salatzen duena interes publikoa defendatzen eta legezkotasuna betearazten laguntzen ari da, eta horrek goraiatu beharreko onura sozialak sortzen ditu.

Esparru horretan, ingurumen-salatzaila funtsezko eragilea da ingurumena ikuskatzeko eta kontrolatzeko ahal publikoak eraginkorrak izan daitezzen. Izan ere, askotan, administrazio publikoen zeregina indartzen du zaintza-lanaren bidez, eta lan hori hainbat modutan egin daiteke, bai abisuen edo komunikazioen bidez, bai salaketaren bidez.

Honelako kasuetan, salaketek administrazio-izapidetzea behar dute beti, eta ingurumena kontrolatzeko eskumena daukaten organoek ezin dituzte alboratu. Administrazio-jardunaren helburua izan behar da salatutakoa zenbaterainokoa den baloratzea eta salatutako gertaerak ikuskatzea (kasu honetan hondakin-uren isurketa), eta ingurumenari eta osasun publikoari egindako kalteak egiaztatzea edo salaketa salatutako gorabehera kontrolatzeko eskumena daukan organora bideratzea.

Kasu horretan, salatzailak adierazten badu alderdi interesduna izan nahi duela, administrazio-prozedurari buruzko araudiak aukera ematen dio administrazio-espeditzearen izapidetze osoan zehar esku hartu eta parte hartzeko, ingurumen-arloko legezkotasuna berrezartzeko neurriak eta ingurumenari egindako kalteen erantzukizuna eskatzeko, eta, halaber, ingurumen-arloko legerian xedatutakoaren kontrako arau-hausterik egin denez zehazteko.

Horrez gainera, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legeak 31. artikuluan biktimaren figura ezartzen du: salatutako gertaerak kalte egiten dioten pertsona, zehapen-prozeduran nolabaiteko interesa (banakakoa zein kolektiboa) daukana. Izan ere, legeria horretan biktimak identifikatu beharra ezartzen dio zehapen-izapidea egiten duen organoari, eta neurri eta ekintzan zehatzak arautzen dira biktimak zehapen-prozeduran bere interesak defendatu ahal izateko.

3. Salaketaren xedea dela-eta, jabari publiko hidraulikoaren kudeaketa eta urak arautzen dituen legeriak berariaz debekatzen du jabari publiko hidraulikoa kutsatu edo narriatu dezaketen jarduerak egitea, batez ere hondakin solidoak, obra-



hondakinak edo substantziak (era guztietakoak) nonahi pilatzea, baldin eta urak kutsatzeko edo ingurunea narriatzeko arriskua ekarri ahal badute.

Hori dela-eta, aipatu behar da Uren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 100.1 artikulua honako hau ezartzen duela: *“Orokorrean, debekatuta dago zuzenean edo zeharka hondakin-urak eta hondakin-produktuak isurtzea, baldin eta ur kontinentalak edo jabari publiko hidraulikoaren beste elementuren bat kutsa badezakete, administrazio-baimena eduki ezean”*.

Horrenbestez, 1/2001 Errege Lege Dekretuaren 105. artikuluan ezartzen denez, behin egiaztatuz gero baimendu gabeko edo baimenaren baldintzak betetzen ez diren isurketa bat gertatu dela, arroko erakundeak abian ipiniko du zehapena ezartzeko eta uren kalitateari egindako kaltea nolakoa den zehazteko prozedura.

Beste alde batetik, EAEko uren ekainaren 23ko 1/2006 Legeak 29. artikuluan debekatu egiten du urak kutsatzea edo narriatzea, eta batez ere hondakin-produktuak isurtzea, aurretik Uraren Euskal Agentziak administrazio-baimena eman ezean.

Halakorik isurtzen bada, 1/2006 Legearen 55. artikulua arabera arau-haustea gertatzen da, ez baitira betetzen uren legerian aipatzen diren kontzesio eta baimen administratiboetan ezartzen diren baldintzak.

4. Kexan aipatutako kasuan, URBIDE/Arabako Ur Partzuergoak azaldu du zer erantzun zaion kexagileak ur beltzen isuria ezabatzeko orain arte egindako lanei buruz galdetzeko bidalitako posta-mezuari.

Jasotako erantzunean azaltzen da zer egin duen Laudioko Udalak tarte horretan dagoen kolektorea garbitzeko eta ikuskatzeko. Txostenean onartzen da ur beltzen isurketen arazoa errekaren tarte estalia hasten den lekuan euri-uren saneamendusarera egiten den isurketa dela.

Partzuergoak Motxotekaleko saneamendu-sarea hobetzeko egin diren lanen berri ematen du, baina onartzen du isurketak bere horretan jarraitzen duela, Lamuza kaleko ur beltzen saneamenduko hodia apurtuta dagoelako eta ondorioz ur beltzak euri-uren sarera heltzen direlako eta handik Aldaikoerrekaren tarte estalira.

Partzuergoak adierazten du Laudioko Udala arazoa aztertzen ari dela eta hodiak konpontzeko asmoa daukala, isurketa gehiagorik ez gertatzeko.

Hori dela-eta, aipatu behar da ezen, isurketa eragiten duen saneamendu-sarea konpontzeko konpromisoa badago ere, aurrean aipatutako erantzunean onartzen dela ur beltzak etengabe isurtzen direla eta ondorioz Aldaikoerrek kutsatuta dagoela aspalditik eta hortik etorri direla salatutako usain txarrak.



Nolanahi ere, gogoan eduki behar da erakunde honek dakienaren arabera, ur beltzak luzaroan isuri badira ere, arroko erakunde eskudunak ez duela erabaki diziiplina hidraulikoko espedientea hastea uren araudia hautsi dela-eta zehapena ezartzeko eta eskatzeko jabari publikoari egindako gaitz-kalteak ordaintzeko eta erreka lehen zegoen bezala uzteko.

5. Administrazio publikoek ur lasterretara egiten diren isurketak ingurumen-arloko legeriaren arabera kontrolatzeko eta egokitzeko esku hartu beharra ez da soilik aukerako kontua; aitzitik, interes orokorraren defentsan eta legeriaren ondoriozko betebeharrak betetzen direla bermatzeko ordenamendu juridikoak egotzen dien ahalmen publikoak baliatzea da.

Administrazio-espedientea abiarazteari buruzko erabakia hartzea araututa dago, eta zehatzeko ahala baliatzeko eskumena daukan organoari dagokio. Erabaki hori behar bezala arrazoitu eta justifikatu behar da: egokitasun-arrazoia gabe ordena publikoa eta legezkotasunaren defentsa bezalako argudioak aipatu behar dira.

Horrela, administrazioak prozedura batean egiaztatzen badu balitekeela isurketa baterako baimenean ezarritako baldintza guztiak ez betetzea, ondorio ezinbestekoa uren gaineko legezkotasuna berrezartzeko eta zehapenak ezartzeko neurriak aplikatzea.

Auzitegi Gorenak otsailaren 15eko 354/2023 epaian zehapena eta jabari publikoari egindako kalteen ordaina eman beharra berresten ditu arroko erakundeak baimendutakoa baino kutsadura-karga handiagoa isurtzeagatik ur laster publiko batera. Hain zuzen ere, epai horretan ezartzen da isurketaren kutsadura-karga ezin zaiola egotzi arazketa-instalazioen funtzionamendu txarrari *"es evidente que sí, pese a conocer esas deficiencias, se continuó realizando el vertido, culpabilidad hay y en su forma más intensa de conciencia y representación del daño, lo cual se evidencia de los mismos argumentos de la demanda. Es más, las pretendidas circunstancias de las que se quiere eximir el Ayuntamiento como causa de justificación del vertido, que no excluirían la culpabilidad sino la sancionabilidad, tampoco pueden ser acogidas, porque si fue el mismo Ayuntamiento el que solicitó y asumió la concesión para un vertido urbano con unos límites de carga contaminante; en su manos estaba vigilar dichos límites y, o bien no autorizar o condicionar autorizaciones o licencias que alterasen dicho vertido o modificar las instalaciones depuradoras, coste al que debía cooperar, como una exigencia más de la urbanización de los terrenos en que debieron instalarse las edificaciones a que se hace referencia"*

6. Hori dela-eta, gogora ekarri behar da Arartekoaren 2020ko urtarrilaren 23ko 2/2019 Gomendio Orokorra, zeinaren bidez administrazio eskudunei adierazten baitzaie Euskal Autonomia Erkidegoko ibaietan baimendu gabeko isurketa kutsatzaileak ikuskatzeko eta kontrolatzeko protokoloak hobetzeko proposamenak egiteko.



Arartekoaren ebazpen horretan Arartekoak gogorarazten zuen ezen, ukitutako jabari publiko hidraulikoa lehengoratzeko diziplina-jarduketekin batera, uren legerian izendatutako organo eskudunek ofizioz erabili behar dituztela beren zehatzeko ahalak, zehapen-prozeduraren araudiari jarraikiz. Orobat, Arartekoak adierazten zuen nahitaez eskatu behar zituztela Ingurumen erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legean arautzen dena aplikatu behar zaien isurketek sortutako ingurumen-kalte larrien ordainak.

Euskal Autonomia Erkidegoan, EAeko Uren Legeak ezartzen duenez, erkidego barneko arroetan eta erkidego artekoetan (Estatuko administrazioak agindutako hitzak erabiliz) diziplina hidraulikoko eskumenak URA-Uraren Euskal Agentziak erabiltzen ditu.

Gainera, URBIDE/Arabako Ur Partzuergoak 2019ko uztailaren 8an onetsitako saneamenduko ordenantza teknikoek arautzen dituzten eskumenen eta zehapenen araubidea aipatu behar da, Laudioko udalerrian aplikatzen diren heinean.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egin die URBIDE/Arabako Ur Partzuergoari eta URA/Uraren Euskal Agentziari:

Gomendioa

Bultza ditzatela Laudioko Aldaikoerreka isurketak baimenik gabe egiteagatik aurkeztutako salaketei erantzuteko adostutako neurriak.

Zehatzago, Arartekoak URBIDE/Arabako Ur Partzuergoari gomendatzen dio ezen, Laudioko Udalarekin koordinatuta, bere ardurapeko baimendu gabeko isurketaren bat detektatuz gero, eskura dauzkan baliabide guztiak jar ditzala ahalik azkarren eteteko isurketa kutsatzaileak, eta, ingurunea narriatzen bada, konpon dezala uren kalitateari egindako kaltea.

Halaber, Arartekoak Uraren Euskal Agentziari gomendatzen dio erabil ditzala Aldaikoerrekan antzeman diren isurketak ikuskatzeko ahala, horregatik zehapenak ezartzeko ahala eta inguruneari egindako kalteak konpontzeko ahala.